

KONTU KONTARI**HARTZA, INAUTERIA
ETA EUSKARA AZKAINEN**

Urtarrilaren erdi aldean Azkaineko Ugaitz Arin gaztearen gutun elektronikoa jaso nuen, eta bertan kontatu zidanez herriko inauteria berpizten eta indartzen ari ziren. Gutunean zioenez, ba omen ziren lauzpabost urte horretan ari zirela eta bazuten inaute-batzorde bat urtero, inauteri kari, biltzen dena. Beraiekin biltzea eskatu zidaten hartzaz eta inauteriaz hitz egin nahi baitzuten, eta nik atsegin handiz onartu nuen gazteak egindako gonbidapena.

Lehen bilkura Azkaineko biltokian egin genuen eta bertara hiru gazte azaldu ziren: Mikel Berasaluze, Julian Grazi eta Gexan Azarete. Geroxeago Sud-Ouest-eko kazetari bat agertu zen inaute-batzordearen berri eduki nahi baitzuen, aipaturiko egunkariko Azkaineko kronikan zerbait ateratzeko asmoz.

Bilera hartan ordura arte egindakoak eta zituzten asmo berriak aurkeztu zizkidaten. Inauteriaren ardatz gisa hartza bazuten ere, bestelako pertsonaiak ere bazituzten: zirtzilak, epai-lea,... eta abar. Pertsonaia horien jardueraz eta izateaz sakondu nahi zuten, eta horretarako euskal inauteriari buruzko hitzaldi bat galdatu zidaten.

Hitzaldia otsailaren lehen ostiralean eman nuen herriko etxeko biltokian, eta biziki mamitsua gertatu zitzaidan azkaindar gazte eta zaharrekintzatzeko eta ideiak trukatzeko parada ukan bainuen. Handik astebetara bigarren bilkura batera deitu ninduten. Bilera hartan hamar bat lagun zeuden batzartuta, 2010eko inauteriari azken ukituak emateko pronto. Horretarako zenbait delibero hartu beharra zuten. Horietako bat zenbait lagunek egindako prediku ezberdinen artean bat aukeratu behar, otsailaren 20an, larunbatarekin, herriko plazan Zantzarri (Azkainen Pantzar deitzen diote) egin behar zioten epaiketan jende aurrean irakurtzeko.

Bi prediku eginda zituzten, biak hagitz politikak, gaurko lapurteraz idatziak. Biak irakurri ondoren, laburrena aukeratu zuten, Zantzarren epaiketa gehiegi luza ez zedin. Nik bi predikuak eskuratu nituen, eta orain, segidan, aukeratu zutena eskainiko dizuet zuek ere azkaindarren euskara ederraz goza dezazuen.

Azkaineko Inauteria. 2010 Proposatutako eta onartutako predikua.

Pantzar. Koztar kravat. Trraktak banatzen ta bortzekoak ematen ditu, irri pollit batekin. Eszenatokira upatzen da ta diskurtsoa hasten du.

Pantzar. Azkaindar maiteak agur !! Nik, Zantzarrek, ibaute egun huntaz aprobeixatu nahi nuke, berri on baten aipatzeko. Aurtengo régionaletan presentatzen naiz! Nere partidu berriarekin: UMP.

Utzi manamendua Zantzarri! (Izendapen hau aldatzen abal da idea hobe bat atxemanta)

Kanpaina molde berri bat asmatu dut. MEETING

PARTIZIPATIBOA! Nere programa jakin nahi baduzue, galderak pausa! Nork badu galdera bat? (Publikotik norbaitek eskua altxatzen du)

Bai, zer da zure galdera?

Publikokoa: Zer diozu bemen inguruetan pasako den trenbideaz?

Pantzar: (Galdera entzun ez balu bezala) Nork badu bertze galdera bat? Zuk? Edo zuk?

(Publikoan AHTren manifa agertzen da, txaranga, txistu, danborra eta guziekin. Aitzinean bat haurren traktore tiki batean da. Manifatik Pette ateratzen da ta mikrora hurbiltzen da)

Pette: To! Pantzar! Aspaldikoa! Politikan ari zarenetik itxuraz aldatu duzu! Nun dituzu gapelu, ator eta espartinak!

Pantzar: Jakizak Pette, nere lagun berriak ez ditukela hola bez-titzen.

Aferetan erreusitu nahi bauk, hire janzkerari kasu egin behar duk!

Pette: Pantzar politikan! Ongi gaituk! Baina zer egin behar duk?

Pantzar: Sekulako proiektuak ditut herri hunentzat!

Pette: Treinbide bat adibidez!

Pantzar: Egia erran, ongi pentsatua treinbide horrek ez lituzke kalteak ekarriko bakarrik. Alde onak ditu ere!

Pette: Baina gan den astean, zu eta zure lagunak kontra zinen! Ta orain alde! Bortz egun guziz ideiaz aldatzen du-zue, jendeak ez du fitxik konprenitzen!

Pantzar: Gure eginmoldea izigarri ulergarria da. Eta zuek, base-rritar usainduak ez baduzue ulertzen, berdin zaigu, ez duzue interes haundirik. Gu, herriaren onerako ari gare, ez du gu gure baratze ttikia begiratzen bakarrik!

Pette: Zer? Gu laborari usainduak? Hurbil zaite ta erakutsiko dizut nundik heldu zaren zu ere! (Pantzar hurbiltzen da, ta borrokan hasten dira biak. Hortik epailea agertzen da, bi jendarme kagulatuekin.

Jendarmeeek biak plakatu eta koreografia syncro batean epailearen aitzinean ematen dituzte)

Epailea: Zer da bordela hori! Ez dut onartuko holako kaka nahasteri herri huntan! Eta nor zaizte?

Pantzar: Egun on jaun jujea! (bere karta erakusten du) Pantzar nauzu, Pantzar.com enpresaren PDG-a, eta seguraski eskualdeko hautetsi berria!

(epaileak karta begiratzen du hurbildik)

Epailea: Pantzar..... Pantzar..... Iduritzen zait nunbeitik ezagutzen zaitudala. A, bai! Badut zerbait hemen zuretzat!

(ateratzen du paper bat sakeletik) Epaitegira konbokazio bat!

Noizko? A, bai! Egungo! (Pantzar enseiatzen da diskretoi eskapatzen). Zer egiten duzue zuek! (jendarmeei) Atxemazue!

(Borrokaldi bat, eta Pantzar ekartzen dute)

Pantzar! Hemen zareno, epaituko zaitugu! (paper bat ateratzen du) Hemen zare, aurten ere, soberan jan duzulako, Xantakoko radarrean hamar aldiz flaxatua izan baitzare, permissa izan gabe ere, Martintxo gaualdietan sobera gaizki kantatzen duzulako, musikariak tratatzen dituzu, haur ta zaharrak iziarazten baitituzu, sobera edaten duzulako.... Baina Pantzar! Lista hau ez da bukatzen! Konseilatzen dizut aurten, ez dezazun zure burua bakarrik defendatu! Abokata bat beharko zinuek! Baten bat ezagutzen duzu?

Pantzar: A? Beharbada bat ezagutzen dut! Egon bi minuta, deituko dut!

(Itzultzen da ta Petteri bere mugikorra galdetzen dio, ta harek prestatzen dio. Pantzar urruntzen da telefonatze-ko)

Bai, maitia? Etor zintezke? Zure beharra nuke. Bai? Milesker!

(Epailearengana itzultzen da) Abokata hor izanen da bi minuturen buruan. Aliot Marie agertzen da bi bizkarzainekin, ta irri haundi batekin publikoa agurtzen du bat banazka, bortzekoak emanez.

Pantzarrengana hurbiltzen da gero)

MAM: Bonjour mon petit Pantzarrou! Zure kanpaina ongi pasatzen da? Ez ahantzi eskualde hau irabazi behar dugula! Biziki inportantea da!

Beraz, zer duzu arazoa?

(Pantzar ta biak urruntzen dira, ta diskretoki esplikatzen dio)

O! Jaun jujea! Ez zintudan ikusi! (Bortzekoa ematerat hurbiltzen zaio) Nola doa zure emaztea?

Epailea: Ongi, ongi, ministro anderea. Naina ez gare hemen nere andreaz mintzatzeko! Hemen gare Pantzar jujatzeko!

MAM: Baina, jaun jujea! C'est un mal entendu! Ez da posible, ez du tzarkeririk egin!

Epailea: Hori ez duzu zuk erabakiko! Sar dadila lehen lekukoa! (Lekuko bat sartzen da)

Zure izena errazu eta zer den zure akusazioa!

Beñat: Agur jaun jujea! Zapelenbordako Beñat nauzu, eta hemen naiz gan den aldian Hendaian egin zen AHTaren kontrako manifara

Pantzarrekin joan bainaiz. Eta han ohartu naiz Pantzar futitzen zela manifaz. Egia erran, argazkilari eta telebisten aitzinetik pasatu orduko, manifatik atera, eta bentetat gan da. Ni hura, atxeman gabe egon naiz orenak ta orenak, eta bakarrik sartu behar izan dut.

Geroztik entzun dut mozkor arraildu zela ostatueta, eta gainerat Fronteran bukatu zuela gaualdia. Badut uste hauteskunde garaia baita, jendeeri erakutsi nahi izan duela burdinbide berrien kontra dela, baina egiazkiz ongi futitzen dela.

MAM: Barkatu jaun jujea, abokata izateaz gain, badakizu politikan ari naizela pixkat ere. Pantzar orain, gure militante fidela da eta badakizu gure partidua gogorki treinbide berrien kontra dela.

Pantzar: Baina uste nuen alde ginela!

MAM: Ixo! Estatistika berrien arabera, kontra behar dugu orain! (epailearengana itzultzen da) Pantzar ez da manifatik joan, galdu da baizik. Eta ostatuz ostatu ibili da. Bere bidearen galdetzeko, ez mozkortzeko.

Pette: Jaun jujea, badakizu Pantzar aspalditik ezagutzen dudala. Eta biziki ongi ezagutzen dut. Beñatek erraten duenak beraz ez nau harritzen.

Pantzarrekin beti berdin da. Ostatu bat ikusten duen aldi oro barnerat sartu behar du. Eta aldi oro, mozkortzen da eta neska batekin bukatzen du gaua.

Begira duela gutti, Parisera joan ginen biak Laborantxa Saloinerat. Eta zer egin du zuen ustez? Behiak artatu? Ez, mozkortu da! Eta hara norekin bukatu zuen gaua (gibelean agertzen dira argazki batean MAM eta Pantzar musukatzen ari). Erran didanaren arabera, gainerat defentsa ministroak keke bat eman dio Azkaingo trinketea berri dezan!

Pantzar: Ez da batere uste duzuen. Biziki sinple da. Neska eder honek hortzetan min zuen, eta garaian mediku ikasketak egin baititut, enseiatzen nintzen ikusterat zer zuen.

MAM: Ixil hadi Prilili! (jujearengana itzultzen da) Jaun jujea, ongi ageri da argazki hau muntaia bat dela. Eta noski, probak baditut.

(bizkarzaienei keinu egiten die eta batek maleta bat ateratzen du)

Horra nun diren probak (epaileari maleta ideki ta barnekoa erakusten dio: billeta paketa bat) Politikak dira, ez?

Epailea: Baina zer da hori? Erosi nahi nauzu? Jakin ezazu ez naizela holakoa! (jendarmeei) Atxemazue!

(jendarmeak MAMen bila doazte, baina bizkarzainekin borrokatzen dira lehenik, ta gero MAM atxematen dute)

Politikari zikina! Zuk ere zure kalteak pagatu beharko dituzu!

Justizia ministro! Presoen urruntzea, euskaldunen kontrako errepresioa, nolanabizko atxilotzeak, Jon Anzaren desagertzea, kontrolen ugaritzea...

Pantzar: Zer, gauza guzi horien errudun zare! Kanpora! (Aliot epaitegitik kanporatzen du)

Epailea: Epepep Pantzar! Ez dut bukatu zurekin. (jendarmeei atxikitzen dute) Zure auzia ez da bukatua! Aurten berriari egin dituzun kalte guziengatik, ta zure zentzuga-bekeriarengatik, hiltzerat kondenatzen zaitut. Surat! Eremazue kondenatu hau!

(bi jendarmeei SUA! SUA! oibukatuz, Pantzar atxeman ta su lekurat erematen dute)

Predikua hautatu ondoren, hartzaren irudiaz eta euskal inauteriaren barruan eduki behar duen eginbeharrak luze aritu ziren. Eta hartzak gure kosmogoniaman eta gure inauterian ukan duen garrantzia nabarmendu zuten.

Gauza jakina da hartza zahar samarra dela euskal inauterian. Paleolitoan gure arbasoek bizitoki eta aterpetzat zituzten leize-zuloetan ezagutu zuten eta miretsita gelditu ziren animalia honen bizimoduarekin. Urteroko neguloa edo hibernazioa izan zen gehien harritu zituena, hartzaren hibernazioa ama-lu-

rraren negu loaldiarekin bat baitator. Eta, azken finean, horixe da inauteria, hartzaroa Uztaritzen erraten dutena, neguko solstizioaren eta udaberriko ekinozioaren arteko denboraldi luzea. Hartza da, beraz, euskal inauteriaren ardatza.

Baina hartzak badu bigarren agerraldi bat gure artean. XIX. mende

hondarrean eta XX.aren hastapenetan, Europako ekialdetik zetozen buhame edo zingarianoek hartza zekarten beraiekin, eta herriz herri, etxez etxe, baserri baserri eskean ibiltzen ziren animalia honekin. Eta zingarianoekin batera, hartz hau ere gure inauterira pasatu ziren. Donostiako kaldereroak ditugu adibiderik onena.

Azkainen, bi gerla handien artean galdutako inauteria berpiztu nahi dute, eta horregatik adin handiko herritarrei galdezka ibili dira. Eta horren berri ematen ari zitzaizkidala, bilkuran zegoenetako batek, urtarrileko lehen bilkura hartan ezagutu nuen Julian Grazi gazteak bere aitatzik lapurtera gartian eta letra kaligrafiko ezin hobeaz idatzirik lekukotasuna mahai gainera atera eta denon aurrean, ozen, irakurri zuen. Eta hauxe izan zen niretzat, azkaindar altxor hartan topatu nuen perlarik ederrena. Honatx irakurle, zerorrek ere epai dezazun:

“Haranederrea”

Gracy Josef. Otsailaren 12a 2010ean, nere 88garren urthean.

HARTZARO

Ihauteriak ziren 8 edo 9 urtherekin. Buraso eta haur guziak sukaldeko mahain haundiaren inguruan bazkaltzen ari, nere Aitatxi Ganixen aldean baratze aldeko atheari buruz. Oi egin nuen, denek burua altxaturik atheari buruz heldu zen halako gizon traste bat gapelu haundi zabar bat buruan, gate burdinazko batekin hartz ilun baten larruzko muturrekoari lotua, lehen aldikotz ikusten nuena. Orduan ikasi

nuen Hongroasak herrietako auzoetan (quartier) beren hartzarekin eske ibiltzen zirela.

Nere Aitatxi sortua 1863, zendua 1950ean.

Aita sortua 1894, zendua 1968an.

---biak auzapez izanak---

Horien ahotik adituak eta horien idatzietan agertuak:

Denbora hartan Ihauteri karia urteroz agertzen ziren beren hartzarekin. Egun batez gertatu zen beraz Azkain beheerako Portu auzoan, nere Aitatxik gosturat deitzen zuen Porto Rico. Hor dago etxe bat izena zuana: "Maribaurtxoenia", Inda familia zen hor bizi. Aita zen "Louis Haundia" bargina zen biziki haundia eta lerdena, agua ardiente edailea eta berez indar neurritz goitikoaren jabe zen gizona.

Hartzaren gidariari Portuzale multxo batek inguraturik pario bat proposatu zioten, eia zoin izanzen azkarrena, Louis Haundia edo hartza. Gidaria engeiatu zen hartzaren besarka geldiaraztea. Sobera min gerta balitz hartza xutik eman zen. Biak besarka borroka loturik, gizonak garaitu zuen.

Louis Haundiaren semeak ziren: Louis, Antonio eta Piarres Inda. Bertze bat ezin da irakur.

Duela 4 edo 5 urthe Thierry Truffaut jaun ikerlaria jin zitzaitan preseski ihauteri, hartzaro, sorginkeri gai horietaz. Nere arbasoek utzi idatzietan gauza interesgarri baita... gozaingarri.

Hartz horien aztaparretako behatzak* moztuak omen zituzten zernahi gerta!!!

Azkaindarrak lan polita egiten ari dira bertako inauteria eta hartzaren etorrera berreskuratzean, geroak eskertuko dien lana. Etorkizunari iraganetik edatea zor diogu, eta Josef Gracy-

ren lumak xarmanki ematen digu iragan horren berri, hartzak, inauteriak eta euskarak elkar osatzen baitute Azkainen. Hala bada, hala bedi urte luzetan!

Joseba Aurkenerena Barandiaran
Urruñan, 2010eko apirilaren 8an.

Obarra:

* Behatzak: Honela deitzen zaie Lapurdin azazkalei. Gure hatzak edo behatzak deitzeko erhi hitza darabilte.